

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2019/2020 ikasturtea

Lhko haurren ahozko eta idatzizko trebetasunak lantzen:
Hainbat ametsen istorioak proposamena

Egilea: Ane Garbisu Alcorta

Zuzendaria: Aintzane Etxebarria Lejarreta

Leioan, 2020 ko maiatzaren 22an

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: Hizkuntza trebetasunak lantzen	4
1.1 Hizkuntza trebetasunen ezaugarriak eta garrantzia	4
1.2. Hizkuntza trebetasunen trataera dokumentu ofizialetan	8
1.2.1. Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum (236/215ko Dekretuaren II.Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea)	8
1.2.2. Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa txostena	10
1.2.3. Eusko Jurlaritzaren	11
1.3. Hizkuntza trebetasunak lantzeko baliabideak	12
1.3.1. Ipuina.....	12
1.3.2. Jokoa	13
1.3.3. Biografiak.....	13
2. Proposamena: Hainbat ametsen istorioak	14
2.1. Testuingurua eta prozedura	14
2.2. Proposamenaren ezaugarriak eta atalak	16
2.2.1. Elkarrizketetan oinarritutako biografiak	16
2.2.2. Hizkuntza lantzeko jarduerak.....	17
2.2.3. Gogoetarako galderak	18
2.2.4. Elkarrizketak sortzen atala	19
2.3. Gaitasunak, helburuak eta ikasitako edukiak	19
2.4. Proposamena erabiltzeko era ikasgelan.....	22
3. Ondorioak.....	22
4. Etika profesionala eta datuen babesa	23
5. Bibliografia	24
ERANSKINAK.....	26
1. eranskina: Elkarrizketaren gidioa.....	26
2. eranskina: Elkarrizketak.....	28
3. eranskina: Proposamena.....	53

LHko HAURREN AHOZKO ETA IDATZIZKO TREBETASUNAK LANTZEN

Ane Garbisu Alcorta

UPV/EHU

Ikaskuntza prozesua esanguratsuagoa da benetako materialak erabiltzen badira. Eskolaren zeregina ez da bakarrik kontzeptuak irakastea, horrez gainera, balore desberdinak transmititzeko agertoki aproposena da. Hori dela eta, proposamen honen helburua 3.zikloko ikasleek idatzizko eta ahozko trebetasunak lantzea da, baina genero desberdintasuna zeharkako gai moduan landuz. Emakume desberdinen biografiez osatutako liburuxka bat, non honekin batera jarduera desberdinen bitartez hizkuntza-trebetasunak lantzeaz gainera genero desberdintasunari buruz hausnartu dezakete ikasleek. Horretarako, emakume desberdinei haien lanpostuen inguruan elkarrizketa desberdinak egin zaizkie, haien bizitzak ezagutzeko, liburuxkako biografiak sortzeko. Horrela, emakumeen benetako istorioak erabili ahal izan dira liburuxka hau sortzeko, egun arazo izaten jarraitzen duen gai honen inguruan hausnartu ahal izateko.

Komunikazioa, hizkuntza-trebetasunak, generoa, zeharkakoa, biografia

El proceso de aprendizaje es más significativo si se utilizan los materiales reales. La tarea de la escuela no es solo enseñar conceptos, también es el mejor lugar para transmitir diferentes valores. Por lo tanto, el propósito de esta propuesta es que los estudiantes del tercer ciclo practiquen habilidades escritas y orales, pero aborden la desigualdad de género como un tema transversal. Un folleto compuesto por biografías de diferentes mujeres, en el que los estudiantes pueden reflexionar sobre la desigualdad de género además de practicar las habilidades lingüísticas. Con este fin, se ha entrevistado a diferentes mujeres sobre sus trabajos, para conocer sus vidas, para crear dichas biografías que forman este folleto. De esta manera, se han utilizado historias reales de mujeres para crear este folleto para reflexionar sobre este tema en curso.

Comunicación, habilidades lingüísticas, género, transversal, biografía

The learning process is more meaningful if the actual materials are used. The task of the school is not only to teach concepts, it is also the best place to transmit different values. Therefore, the purpose of this proposal is for students in the third cycle to practice written and oral skills, but to address gender inequality as a cross-cutting issue. A booklet composed of biographies of different women, in which students can reflect on gender inequality in addition to practicing language skills. To this end, different women have been interviewed about their work, to learn about their lives, to create booklet biographies. In this way, real stories of women have been used to create this booklet to reflect on this ongoing issue.

Communication, linguistic skills, gender, transverse, biography

Sarrera

Lehen Hezkuntzako helburu nagusienetariko bat hizkuntza-trebetasunak lantzea da. Etaparen lehenengo mailatik azken urtera arte hizkuntzaren alor desberdinak lantzen dira, batzuk urteetan zehar birpasatuz. Izan ere, hizkuntza-trebetasunek (ahozko zein idatzizko ulermen eta ekoizpena) gainerako arloetan eragina daukate, zenbaitetan eskola porrotaren arrazoietakoa bat bilakatuz. Hortaz, hizkuntza-trebetasunak lantzeko, ikasleen motibazioa izan behar dute helburu irakasleek, eta horretarako nire aburuz, benetako materialak erabiltzea da baliabide didaktikorik onena. Benetako bizitzak, esperientziak, ikasleek gizartean dauden bizitza desberdinak ezagutzeko.

Hori dela eta, aipatutako helburuak lortzeko, *Hainbat ametsen istorioak* liburuxka sortu da. Proposamen honen bitartez ikasleek benetako istorioak ezagutuko dituzte, gizonezkoen lanpostu batean lan egiten duen emakume desberdinen istorioak hain zuzen ere. Izan ere, 236/215 Dekretuan esaten den bezala, zeharkako gaiak arlo guztietan landu daitezke, gaur egun oraindik gizartean aurki ditzakegun desberdintasun edo arazoak. Horrela, *Hainbat ametsen istorioak* liburuxkarekin hizkuntza-trebetasunak lantzeaz gainera, egun kezkatzen gaituen gai baten inguruan hausnartzeko aukera izango dute ikasleek: genero desberdintasuna.

Emakumeen istorioak biltzeko elkarrizketak sortu dira. Erdi egituratutako elkarrizketak dira, hau da, gidoi bat jarraituz baina solasaldi librea lortzea zen helburu. Elkarrizketa hauetan haien lanpostuan duten bizitza ezagutu dugu, esperientzia desberdinak eta aurkitutako oztopoak. Elkarrizketetan jasotako informazioaren bidez ikasleei genero desberdintasunari buruz hitz egiteko eta gogoeta sakon bat egiteko aukera ematen zaie, eta dagoeneko dituzten aurreiritziak azaleratzeko eta ahal den neurrian desagerrarazteko.

Hurrengo orrialdeetan, hizkuntza-trebetasunen garrantziari buruzko esparru teoriko bat aurkitu daiteke eta ondoren proposamenari begira, honekin lantzen diren gaitasun, helburu eta edukiak zeintzuk diren.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: Hizkuntza trebetasunak lantzen

1.1 Hizkuntza trebetasunen ezaugarriak eta garrantzia

Hizkuntza trebetasunen inguruan hitz egiteko ezinbestekoa izango da lehendabizi komunikazio gaitasunari buruz hitz egitea.

Komunikazio gaitasunaren definizioa denboran zehar aldatzen joan da. Hasieran Chomsky-k 1965.urtean (Bermúdez eta González-tik hartua, 2011) gaitasun linguistikoa aipatu zuen, baina hemen soilik linguistikaren ikuspuntu bat kontuan hartzen zen, eta honek ez zuen beti komunikazio on bat bermatzen. Komunikazio gaitasunaren esanahi berrietariko bat Niñok 2008.urtean ematen du. Autore honen arabera komunikazio gaitasuna komunikatzeko beharrezko ezagutzak izatea da, trebetasun eta baloreak izatea komunikazio eraginkor bat mantentzeko, betiere ingurua kontuan hartuz, honen behar eta helburuak zeintzuk diren jakinda (Bermúdez eta González, 2011).

Baina, Alberdik (2008) dioten moduan, komunikazio-gaitasuna eskuratzeko beste gaitasun batzuk landu eta eskuratu behar dira, modu egokian komunikatzeko:

- Hizkuntza-gaitasuna: komunikazio egokia mantentzeko ezinbestekoa da komunikazioan parte hartzen dutenek hizkuntza menderatzea gramatika aldetik, hau da, esaldiak sortu zein ulertzea.
- Gaitasun pragmatikoa: komunikatzerako orduan testuingurua kontuan hartu behar da uneoro. Tokia, partaideak, egoera... aintzat hartu behar dira komunikazioa testuingurura egokitzeo.
- Gaitasun paralinguistikoa: Ez da beharrezkoa hizkuntza-gaitasuna menderatzea gaitasun paralinguistikoa menderatzeko. Hizkuntzarekin batera dauden alderdiak errendatzean datza, keinuen, etenen eta ahotsaren tonuaren erabilera ezagutzea.
- Gaitasun entziklopedikoa: Urteak aurrera egin ahala gizakiok munduaren inguruan eskuratzen duten ezagutzari dagokio. Hori dela eta, komunikazio egoki bat mantentzeko komenigarria da partehartzaileek munduaren ezaguera berdina izatea.

- Gaitasun diskurtsiboa: komunikazio egoera bakoitzari egokitzeko enuntziatu eta egitura desberdinak erabili behar dira eta horretarako, testu koherente eta zentzuzkoa sortzeko gai izan behar du hiztunak (Alberdi, 2008).

Komunikazio gaitasunak hizkuntza trebetasunak barne hartzen ditu, baina komunikazio gaitasunaren kasuan hizkuntzaren ezaugarriez gain, alderdi soziokulturalak kontuan hartzen dira. Izan ere, komunikazio gaitasunaren helburua bi pertsonen arteko komunikazioa burutzean datza (Reyzábal, 1993, Reyzábal, 2012-tik hartua).

Hori dela eta, alde linguistikoaz gainera, kontuan hartu behar dira beste trebetasun extralinguistiko batzuk, hala nola ze kodigo erabili une eta egoera bakoitzean edota noiz isiltzen jakin (Reyzabal, 2012). Hala ere, Edward eta lankideen arabera (1992) hizkuntza trebetasunak lantzea oinarrizkoa da ikaskuntza iraunkorra izan dadin. Horregatik hizkuntza trebetasunen garapenean sakontzea beharrezko da.

Komunikazio gaitasuna hitz egin (hizkuntzaren ahozko ekoizpena), entzun (ahozko hizkuntzaren ulermena), idatzi (idatzizko hizkuntzaren ekoizpena) eta irakurri (idatzizko hizkuntzaren ulermena), trebetasunen bitartez gauzatzen da. Oinarrizko lau trebetasun hauek landu gabe, ia ezinezkoa da bikaintasunera heltzea ahozko eta idatzizko komunikazioari dagokionez, komunikazio prozesuan akats ugari egongo dira eta (López eta Encabo, 2001).

Behin hizkuntza trebetasunak aurkeztuta hauetan sakonduko dugu, irakurmenarekin hasiz. Idatzizko testuen ulermenari dagokionez, esan dezakegu irakurtzea testuan agertzen diren hitzak dekodifikatzea dela, testuak esanahia izan dezan, ondorioz, testua bere osotasunean ulertu ahal izateko. Defior-ek (1996, Vallés, 2005-tik hartua) esan bezala, “Leer es un esfuerzo en busca de significado; es una construcción activa del sujeto mediante el uso de todo tipo de claves y estrategias”.

Nahiz eta onartu irakurtzeak ulertzea esan nahi duela, oraindik eskoletan askotan testua deskodetzeko ariketak lantzen dira. Solé-k (1987) idatzizko testuen ulermena nola gauzatzen den azaltzen du. Autore honen arabera, irakurtzea prozesu aktiboa da, izan ere, irakurlea testuarekin elkarrekintzan egon behar da honen esanahia ulertu ahal

izateko. Hortaz, irakurleak testu bat irakurtzean, testuaz aparte, irakurlearen aurreideiak eta helburuak identifikatzen ditu esanahira heltzeko.

Eskolaren ikuspuntutik, hizkuntza trebetasunak lantzea ezinbestekoa da, irakurtzen jakitea besteak beste, ikaskuntzarako oinarrikoak direlako. Ikaskuntza prozesuan zehar gauzatzen diren zailtasun asko testuak ulertzeko trebetasun faltarekin erlazionatu ahal ditugu. Izan ere, irakurmena funtsezkoa da eskolan idatzizko jakintza eskuratu ahal izateko, testuak bilatzeko, informazioa aurkitzeko hainbat leku desberdinetan, grafikoak interpretatzeko etab (Vallés, 2005).

Beste hizkuntza trebetasun bat idaztea da, idatzizko testu bat ekoizteko prozesua. Ekoitzi hitza esatean idazten duenak hartzailea nor den pentsatu behar du, mezua, nolakoa izango den testua, hau da, ekoiztuko duen testu idatziaren nondik norakoak planifikatu behar ditu. Helburua da, idazleak transmititu nahi duen esanahia eta mezua islatzen duen testu idatzi bat lortzea (Fons, 2004). Gonzalez Landak (2004, 34.or.) idazmenaren ondorengo esanahia ematen du:

“Escribir” es dirigirse a alguien, plantear preguntas y esbozar respuestas, hacer peticiones y/o ofrecer ayuda, expresar necesidades, deseos, emociones, etc. mediante la elaboración de enunciados verbales y plasmarlos gráficamente con distintos útiles y en diversos soportes.

Bestetik, Lebrerok eta Lebrerok (1996, 18.or.) idazmenaren definizio desberdin bat ematen dute:

La escritura, por consiguiente, requiere haber superado la mera reproducción de formas, la copia de un modelo presentado, para atender al mensaje que se trata de transmitir. La copia del modelo no supone lenguaje escrito e impide el descubrimiento personal; necesariamente ha de subordinarse al mensaje.

Idatzizko testu baten ekoizpenak azpiprosesu desberdinak gauzatzea suposatzen du; planifikazioa, non idazleak testua idatzi baino lehen erabaki desberdinak hartzen dituen, egituraren inguruan adibidez. Testualizazioa, testuaren trama sortzen den unea eta azkenik, berrikusketa, non aldaketak egiten diren, idazlea azkenengo produktuarekin ados egon arte, ahozko testuetan hau ezin da egin, ezin delako ahozko testu batean aldaketarik egin (Fons, 2004). Idazmena eta irakurmena landu eta gero, ahozko adierazpena, “hitz egin” kontzeptua landuko dugu. Ahozko adierazpena ebaluatzea

nahiko zaila da, baina argi dago soinuak ekoiztea baino askoz gehiago dela. Baina zer da hizlari on bat izatea? (Ramírez, 2002).

Ahozko komunikazioa pertsonaren bizitzaren oinarritzko ardatz bat da, harreman gehienak bide honetatik gauzatzen baitira. Hori dela eta, ahozko komunikazioa ordezkazina da gizakiaren gizarteratzerako biziraupena eta garapena mantentzeko (Avendaño eta Miretti, 2007). Ahozko komunikazioan, ez dira bakarrik hitzak eta esaldiak interpretatzen, isiluneak, erritmoak, ahotsaren intentsitatea eta abiadura ere kontuan hartzen dira. Gauza hauek hainbat informazio ematen digute esanahiaren inguruan. Azken finean, hitz egitea harremanak izatea da, emozioak transmititzea, ideiak partekatzea, akordioetara heltzea eta erabakiak hartzea. Hizlari on batek uneoro hartzailea kontuan hartzen du eta ekoizten duen mezua hartzaileak modu egokian uler dezan prestatzen du (Ramírez, 2002).

Ahozko komunikazioa denbora guztian gauzatzen den ekintza bat da, bai egoera informal eta berehalakoetan bai harreman formal, planifikatu eta konplexuetan. Ahozko komunikazioak ezaugarri desberdinak ditu, haien artean (Avendaño eta Miretti, 2007):

- Berehalakoa da: sortzen den une berean desagertzen da, grabaketa bat egiten ez bada, eta ezin da berreskuratu.
- Heterogeneoa da: kultura, egoera eta bizitokiaren arabera aldatzen doa.
- Askotan, “hor”, “hori”, “bera” bezalako hitzak erabiltzen dira, eta esanahia ulertzeko ezinbestekoa da entzulea eta hizlaria batera egotea, entzuleak ikusi ahal izateko hizlariak zeri egiten dion erreferentzia (Avendaño eta Miretti, 2007).

Hizkuntza trebetasunekin amaitzeko, ahozko komunikazioarekin oso lotuta dagoen entzuteko trebetasunari buruz hitz egingo dugu. Entzule on bat da, hizlariak bidalitako mezua deskodetzeko gai dena eta pentsamendu kritikoaz baliatuz, jasotako informazioa sailkatzeko eta esanahia ulertzeko (Ramírez, 2002).

Beuchatek 1989. urtean (Murillo, 2009-tik hartua) esan bezala, ikasleen ekintza gehienetan entzuteak parte hartze handia dauka. Hala ere, nahiz eta oinarritzko hizkuntza

trebetasuna izan, ez da asko lantzen hizkuntza dokumentuetan eta proiektuetan. Hori dela eta, ikasgeletan ez da entzumenezko ulermena lantzen baliabide didaktiko desberdinen bitartez.

Jamesek 1984. urtean (Córdoba, Coto eta Ramírez, 2005-tik hartua) entzumenezko ulermenaren inguruan dio entzumenezko ulermena ez dela bakarrik trebetasun bat, baizik eta trebetasun multzo baten konbinazioa, izan ere, ez da ekintza pasibo bat, gauza bat entzutea dela eta beste bat aditzea. Entzumenezko ulermena ezinbestekoa da hitz egiteko nahiz idazteko. Definizio honetik abiatuz esan dezakegu entzumenezko ulermena trebatzeko oinarrizko hiru ekintza adierazi behar direla:

- Ahoz ekoizitako soinuak interpretatzen jakin behar da, fonemak desberdinduz, esaldia deskodetzeko. Hau ezinbestekoa da, zerbait entzutean zer hizkuntzatan dagoen jakiteko.
- Entzutea ekintza aktibo bat da eta ez pasiboa, hortaz, entzuten ari den pertsonak entzundakoa deskodetzeko prozesu mental desberdinak aktibatu behar ditu, entzundakoa ulertu ahal izateko.
- Entzutea eta aditzea ez dira gauza bera, horrek esan nahi du, pertsona batek entzuten ari dena ulertu ahal izateko arreta eta kontzentrazio handia beharrezkoa dela (Córdoba, Coto eta Ramírez, 2005).

Entzumenezko ulermenak gauza asko biltzen ditu, fonemen, intonazioaren eta abiaduraren kontrola adibidez (Córdoba, Coto eta Ramírez, 2005). Hortaz, komunikazio gaitasun maila on bat lortzeko, hizkuntza trebetasunak landu behar dira. Horrela, testuaren erabilera koherente eta egoki bat lortu daiteke, ezagutza linguistikoak eta paralinguistikoak eskuratuz (Ramírez, 2002).

1.2. Hizkuntza trebetasunen trataera dokumentu ofizialetan

1.2.1. Oinarrizko Hezkuntzako Curriculuma (236/215ko Dekretuaren II.Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea)

Eskolan hizkuntza trebetasunei ematen zaien garrantzia zein den jakiteko dokumentu ofizial desberdinak aztertuko ditugu, hala nola, 236/215ko Dekretuaren II.Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea, Hezkuntza Saileko artikulua bat eta

Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa txostena, ikusteko zein nolako trataera jasotzen duten hizkuntza trebetasunek ikasgeletan.

236/215ko Dekretuaren II.Eranskina osatzen duen curriculum orientatzaileari dagokionez, curriculumean hizkuntzak hainbat modu desberdinetan lantzen dira. Alde batetik, zeharkako konpetentzia den Hitzezko, hitzik gabeko eta komunikazio digitalerako konpetentzia daukagu. Konpetentzia honen barnean hitzezko komunikazioa osagaia daukagu, hizkuntzak erabiltzeko baliagarria dena. Izan ere, hitzezko zein idatzizko testuen bitartez pentsamendu, sentimendu edota iritziak adierazi edo interpretatzea, esparru desberdinetan, hitzezko komunikaziorako konpetentzia izatea da.

Bestetik, oinarrizko diziplina barneko konpetentzia bezala, Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia daukagu eta 236/215ko Dekretuaren II.Eranskina osatzen duen curriculum orientatzaileak (2015, 22.or.) ondorengo esanahia erabiltzen du, “Hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuz komunikatzeko”.

Hizkuntza trebetasunak aipatzen ditu 236/215ko Dekretuaren II.Eranskina osatzen duen curriculum orientatzaileak, non hizkuntza-eta literatura-komunikaziorako konpetentziari buruz dio, konpetentzia hau garatzeko ezinbestekoa dela konpetentzia hau osatzen duten trebetasunak lantzea, hau da, ahozko zein idatzizko trebetasunak lantzeko estrategiak garatzea.

236/215ko Dekretuaren II.Eranskina osatzen duen curriculum orientatzaileak hizkuntza trebetasunei buruz esaten duenarekin jarraituz, Lehen Hezkuntzako etaparen curriculumean aurretik aipatutako Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia hiru ikasgairen bitartez lantzen da batez ere. Alde batetik, helburu berberak dituzten Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura arloak ditugu eta bestetik, Atzerriko Lehen Hizkuntza.

236/215ko Dekretuaren II.Eranskina osatzen duen curriculum orientatzaileak garrantzia handia ematen dio zeharkako konpetentziak behar bezala garatzeko behar

dituen eduki guztiak lantzeari. Hori dela eta eduki komun horien inguruan ondorengoa dio, “Gizarte-bizitzako esparru adierazgarri guztietan hitz egiteko, idazteko, entzuteko eta irakurtzeko trebetasunak eta estrategiak lantzea, horixe da curriculumaren muin eta ardatza” (2015, 119.or.).

Ahozko komunikazioari dagokionez, 236/215ko Dekretuaren II.Eranskina osatzen duen curriculum orientatzaileak aitortzen du eskola eremuan nahiko ahaztuta egon den alderdi bat dela. Eta, beharrezkoa da esatea komunikaziorako konpetentzia guztiz garatzeko hizkuntza-trebetasunak menperatzea garrantzitsua dela, ikasle arteko komunikazioa errazteko eta aldi berean, arlo guztietan ezagutza eraiki ahal izateko. Horrez gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen erabilera sustatzea beharrezkoa da, normalizazio-prozesua sustatzeko, egoera soziolinguistikoa dela eta.

1.2.2. Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa txostena

Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa txostenaren arabera, komunikazio ekintza desberdinak daude, zenbait estrategia erabiliz bideratu behar direnak. Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa txostenak hizkuntzaren estrategien inguruan hitz egitean, estrategia hauek hizlariak edo hizkuntzaren erabiltzaileak baliatzen dituela dio. Estrategia hauek erabiltzen dira une zehatz batean agertzen diren komunikazio-beharrei modu arrakastatsu batean erantzuna emateko. Hortaz, estrategiak ez dira bakarrik erabiltzen komunikazio txarra dagoenean baizik eta ama hizkuntzan hitz egitean, gauzatzen diren premiei erantzun egokia emateko.

Txosten honetan, ekoizpen-estrategia (ahozko adierazpena eta idazmena) eta estrategia hartzaileei (entzumena eta irakurmena) buruz ere mintzatzen da. Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren ezaugarri berezia da eskala argigarriak ematen dituela, maila desberdinak ezarriz, ahozko zein idatzizko adierazpena neurtzeko, non maila bakoitzean zer eskatzen den agertzen den azalduta.

Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa txostenaren esanetan, ekoizpen-estrategiei dagokienez, hizkuntzak dituen

estrategia desberdinak erabili behar dira, oreka bat aurkitzeko, abileziak estaltzeko eta aldi berean, indarrei etekina ateratzeko.

Estrategia hartzaileei dagokienez, erabiltzaileak testuingurua aztertu behar du eta hori behin eginda testuinguruari egokitzeko ezagutzak erabili behar ditu. Hau da, eskemak sortu behar ditu, lehenik eta behin planifikazio on bat eginez, hitz gakoak aurkituz. Gero, behin hitz gakoak identifikatuta inferentziak eginda, hipotesiak osatzen dira eta mezuaren eta haren osagaien garrantzia ondorioztatzen da. Behin hori eginda, hipotesiak egiaztatu behar dira, testuaren zein testuinguruaren ebidentziak aurrez aurre izanda egiaztatzeko ea eskema ondo egin den. Azkenik, hipotesi horiek berrikusi behar dira eta txarto egotekotan prozesu guztia errepikatu, eskema alternatibo bat aurkitzeko.

1.2.3. Irakurketa Lantzeko Orientabideak, Lehen Hezkuntza, Eusko Jaurlaritza

Irakurketa Lantzeko Orientabideak, Lehen Hezkuntza, artikulua dioenez, hezkuntza arloari dagokionez irakurketa bi helburu nagusitan oinarrituta dago, bata, ikasteko irakurri, eta bestea, irakurzaletasuna garatzea. Baina bi helburu hauek askotan elkartzen dira, izan ere, irakurtzeko grina izanda, ezagutza sortu eta ikasteko irakurtzeko gogoia dauka ikasleak. Aldi berean, zenbat eta gehiago irakurri ikasteko gero eta gehiago sustatzen da irakurtzeko grina. Hau da, ezagutza garatu ahal izateko irakurtzea ezinbestekoa da eta bestetik irakurzaletasuna, non ikasleek testu desberdinak modu autonomoan irakurtzea bilatzen den. Nahiz eta bi helburu hauek loturarik ez dutela pentsatu, askotan elkarrekin doaz. Izan ere, ikasle batek irakurtzeko grina duenean, ezagutza sortzeko gogoia dauka, ikasteko. Aldi berean, ikasteko irakurri behar denez, askotan behar hori zaletasun batean bihurtzen da, irakurtzeko grina sustatuz.

Testuan agertzen den bezala, Eusko Jaurlaritzak irakurketa oinarrizko baliabidea dela dio, bai eskola barruan bai eskolatik kanpo. Irakurtzeko gaitasun egokia izateak ez du eskola arrakasta bermatzen, hobeto irakurtzeagatik ez dira emaitza hobeak aterako. Baina egia da, eskola porrotaren arrazoi bat izan daitekeela eta batez ere ikaslearen garapen kognitiboan oztopo bat. Hori erakusten dute EAEn egindako PISA proben emaitzek, ikasle baten irakurketa gaitasunaren mailak lotura handia daukala lortutako emaitzekin.

Irakurzaletasunari dagokionez, hau garatzeak helburu nahiko argia dauka; irakurtzeko ohitura sortaraztea eta modu autonomo batean testu mota desberdinak irakurtzea. PISAko emaitzek esaten dute lotura handia dagoela irakurzaletasunaren eta irakurritakoaren ulermenaren artean. Are gehiago, behartuta egon gabe, gozatzeko, irakurtzen duten ikasleek irakurketako probetan emaitzarik altuenak lortzen dituzte.

1.3. Hizkuntza trebetasunak lantzeko baliabideak

Ume txikientzat askoz errazagoa da mugimenduan dauden irudiak izanda testu baten esanahia lortzea bakarrik testua izanik baino. Gainera, normalean ikasleak hautatu ez duen testu bat denez, umeen interesetik aldentuta dagoen testu bat izaten da, eta horrek irakurketaren ekintza askoz zailagoa bihurtzen du (Flores, 2006).

Autore askoren ustetan, ikasleen motibazioa askoz handiagoa da benetako baliabideak erabiltzen badira, objektuak, irudiak edota jokoak, ariketak eta testu liburuak erabili beharrean. Benetako materialek umeen parte-hartzea eta arreta mantentzen dute, abantaila honetaz baliatu behar da irakaslea (Rubio eta Conesa, 2013). Ipuin eta jokoan bidez hizkuntza-trebetasunak lantzeko aukera dago: ahozko ulermen zein ekoizpena eta idatzizko ulermen zein ekoizpena. Material didaktiko horien erabilera egokia egin behar du irakasleak, bere rola oinarrizkoa izanez ikasleen ikaskuntza bermatuz (Muñoz eta Caravaca, 2004).

1.3.1. Ipuina

Ipuina baliabide didaktiko bezala erabili daiteke arlo eta kontzeptu desberdinak lantzeko. Hezkuntzaren helburu nagusietako bat komunikazio gaitasuna garatzea da eta ipuinak helburu hau lortzen lagun diezaguke, irakasle eta ikasleen artean elkarrekintza ugari sorrarazi ahal ditu eta. Gainera, irakurritako ipuina gustuko badute, ikasleak antzeko ipuin bat idatzea lortu dezake irakasleak (Pérez Molina, Pérez Molina eta Sánchez, 2013). Ipuinak erabiltzen hasten direnean, sinpleak izan behar dira, ikasleak hauek erabiltzeari beldurrik ez izateko. Hasieratik umeek ipuinak ezagutu behar dituzte, bai eskolan bai etxean, haiek ulertzeko ipuinak irudi eta letraz beteriko orrialdeak baino zerbait gehiago direla, eta ipuinetan aurki dezaketena ez dutela beste inon aurkituko (Pérez Molina, Pérez Molina eta Sánchez, 2013).

1.3.2. Jokoa

Jokoaren bitartez ikasleak bere irudimena martxan jartzen du, munduari buruz daukan ikuspuntua azaltzeko aukera dauka, eta gainerakoei hau azaltzeko aukera ematen die. Jokoaren bitartez ikaslearen heldutasun maila ikus daiteke, eta honen izaera islatuta ikus daiteke (Esperanza, 2011). Jokoak erabilera desberdinak ditu, adibidez talde lana sustatzeko erabili daiteke. Lankidetzan oinarritutako jokoak dira hauek non galtzailerik ez dagoen (akatsei beldurra kenduz) eta oinarrituta dago informazio truke eta ikasleen arteko harremanetan. Edonon egin daiteke joko hauek eta aukera ugari eskaintzen ditu (Nieto, 1990).

1.3.3. Biografiak

Biografia, ikasgelan erabili daitekeen beste benetako material bat da, egokia irakurmena lantzeko. Anaya-Reig eta Calvo Fernández-ek (2019) esaten duten bezala, biografiak ikasgelan erabiltzeko arrazoi desberdinak daude. Lehenik eta behin, gizakiok jakinmin handia daukagu eta gustoko dugu beste gizakien bizitzari buruz jakitea. Gainera, jakinmin horrek, beste gizakiok egiten dituzten gauzak ezagutu nahi izateak, ikasleen interesa piztu dezake, haien ezagutza garatzera bultzatuz. Are gehiago, hiru oinarri teorikoren bitartez azaldu daiteke zergatik den hain garrantzitsua biografien erabilera hizkuntza ikasgaietan. Lehenik eta behin, gizaki batek beste gizaki batzuekin harremanetan egoteko beharra dauka, menpekotasuna. Are gehiago, gizakiok gara mendekotasun handiena dugunok, eta horren ondorioz, ikasteko gaitasun handiena dugunok (Anaya-Reig eta Calvo Fernández, 2019).

Baina, gaur egun, nahiz eta menpekotasun hori egon, harremanak aldatu egin dira arrazoi desberdinak direla eta. Alde batetik, gero eta denbora gutxiago dago harremanak finkatzeko, ezagutzak transmititzeko, etxeetan denbora falta dagoelako. Gurasoek gero eta lanaldi luzeagoak dituzte eta ezin dute etxean hainbeste denbora egon haien seme-alabekin (Anaya-Reig eta Calvo Fernández, 2019).

Eskolan ere antzeko zerbait gertatzen da, ez denbora falta baina bai hurbiltasun falta, ikasle asko daudelako ikasgela batean eta horrek irakasle-ikasle harreman indibiduala ematea zailtzen du eta bestetik, orain teknologia berriak direla eta

informazio asko bertatik eskuratzen dute eta ez irakaslearen eskutik, informazioa askoz urrutikoa eta berehalakoa bihurtuz. Arrazoi hauek biografiak erabiltzeko premia areagotzen dute, soilik gizakiok transmititu dezaketena irakasteko eta ikasleak alderdi guztietan ikastera motibatuzeko (Anaya-Reig eta Calvo Fernández, 2019).

Biografien erabileraren beste oinarri teoriko bat, kopiaketa ikaskuntzaren oinarrizko prozesua dela da. Hau da, gizakiok balore desberdinak barneratzen ditugu beste gizakiok egiten dutena behatuz eta gero hauek errepikatuz. Baina normalean ez da bakarrik ikusitakoa errepikatzen era zehatzean. Bakoitzak behatutakoaren oinarri nagusietatik abiatuz jarrera berriak sortzen ditu.

Amaitzeko, ikasgelan biografien erabilera babesten duen beste oinarri teoriko bat biografien bitartez pertsonaiekin identifikatu daitekeela ikaslea. Hau da, askotan ahozko zein idatzizko istorioak ezagutzean pertsonaia batekin identifikatzen da ikaslea, enpatia dela arrazoi, pertsonaien sentimenduak ulertuz. Hau gertatzean ikasleak pertsonaia modu positibo batean ikusten du, ikaslea motibatuz pertsonaia bezala izatera (Igartua eta Muñiz, 2008, Anaya eta Calvo, 2019-tik hartua).

2. Proposamena: Hainbat ametsen istorioak

Hurrengo orrialdeetan sortutako proposamena (*Ikus 3. Eranskina*) aurkeztea da helburu nagusia. *Hainbat ametsen istorioak* liburuxkaren sorkuntza, liburuxka bat non genero desberdintasuna zeharkako gai moduan lantzen den eta honekin batera hizkuntza-trebetasunak landuko dira oinarrizko konpetentzia den komunikazio gaitasunaren ezaugarri bezala.

2.1. Testuingurua eta prozedura

Lehen Hezkuntzako etaparako sortutako proposamen hau zehazki 3.zikloan erabiltzeko pentsatuta dago. Izan ere, dagoeneko ziklo honetan ikasleek hausnartzeko zein argudiatzeko gaitasun handiagoa daukate eta irakurmenaren aldetik oztoporik ez legoke egon beharko.

236/215 Dekretuan ikus dezakegun moduan, 3.zikloan lantzen diren generoen egitura testualen artean biografiak aurkitu ahal ditugu. Hori dela eta, proposamen hau

Lehen Hezkuntzako etaparen azken zikloan lantzea aproposena da, biografiaren egitura eta ulermena lantzeko.

Zeharkako gaiak oinarrizkoak dira ikasleak gizartean modu aktibo batean parte hartzeko, hiritarren hezkuntzarako. Zeharkako edukiak, ez dira eremu kurrikular zehatz batekin lotzen, alderdi guztietan landu behar dira ikasleen eskolaldi prozesuan zehar (Fernández, 2004). Gizartean aurki ditzakegun arazo hauetako bat genero desberdintasunaren arazoa da. Eskola oso eragile sozial garrantzitsua da, gizarteratze prozesuan partehartze handia dauka eta. Izan ere, neskek eta mutilek esperientzia ugari bizitzen dituzte Lehen Hezkuntzako etapan, eta etapa honetatik eskuratutako gaitasun eta jarrerak bizitza osoan zehar gidatuko dituzte (Solís, 2007).

Horregatik, emakume desberdinen biografietan oinarritutako txosten bat sortzea da helburu nagusia, non biografia desberdinez baliatuz idatzizko zein ahozko trebetasunak landu ahal diren. Esparru teorikoan esan bezala, komunikazio trebetasunak lantzeko benetako materialak erabili daitezke baliabide didaktiko bezala. Kasu honetan erabiliko den benetako materiala biografiak dira, emakume desberdinei egindako biografiak zehazki, modu honetan genero desberdintasuna zeharkako modu batean ikasgelan lantzeko. Horretarako metodologia kualitatibo bat erabiliko dut: elkarrizketak.

Biografiak egiteko, emakume desberdinei elkarrizketa batzuk egin zaizkie (*Ikus 2. Eranskina*) eta elkarrizketa hauek bideratzeko gidoi bat sortu da. Gidoia egiteko (*Ikus 1. Eranskina*) ondorengo artikuluetan agertzen diren erdi egituraturiko elkarrizketetan oinarritu gara.

Alcañiz-ek (2017) idatzitako artikuluan bi metodologia desberdin erabiltzen dira emakumeen bizitza lan munduan zein den ezagutzeko. Lehenengoa, galdetegi bat (analisi estadistikoa lortzeko) eta bigarrena elkarrizketa bat, emakumeen mintzaldia ezagutzeko. Artikulu hauetan zehar emakume desberdinei haien lan-biografia azaltzeko eskatzen zaie, generoaren inguruan nabarmentzen dituzten desberdintasunak, ezaguna den “Techo de Cristal” fenomenoari buruz hitz egiten da. Horretaz gain, Gaetek (2018), lanpostu altuak eskuratzeko emakumeek dituzten arazoei buruz hitz egiten du, emakumeek egunero gainditu behar dituzten mugak zuzendaritza-kargu bat eskuratzeko.

Azkenik, Sánchez-ek 2015. urtean eskolen barruan dagoen desberdintasunari buruz hitz egiten du. Non nahiz eta emakume irakasle asko egon, ez daude zuzendaritza-karguak gidatzen dituzten hainbeste emakume. Ikerketa hau aurrera eramateko galdetegi bat egiteaz aparte, elkarrizketak egiten dizkie emakume desberdinei. Elkarrizketa hauek gidoi bat jarraitzen dute: lan biografia, denboraren kudeaketa, egunerokotasunean jarraitzen den antolakuntza, zergatik hautatu zuzendaritza-postu bat, zuzendaritza-postu bati aurre egiteko beharrezko gaitasunak eta zenbat denbora ematen duten zuzendaritza-postu horietan.

2.2. Proposamenaren ezaugarriak eta atalak

Liburuxka honek atal desberdinak dauzka (*Ikus 3. Eranskina*).

2.2.1. Elkarrizketetan oinarritutako biografiak

Biografia hauek sortzeko helburua zen lanpostu desberdinetan ematen den genero desberdintasuna azaleratzea. Gizartean dagoen aurreiritzietako bat da lanpostu batzuk gizonezkoenak direla eta beste batzuk emakumezkoenak. Aurreiritzi horrekin apurtu nahian “gizonezkoen” munduan lan egiten duten emakumeak elkarrizketatu dira. Horretarako ondorengo lanpostuetan lan egiten duten emakumeak elkarrizketatu dira, bakoitza egoera familiar desberdin batekin:

- Arkitektoa: bi ume txiki dituen emakumea, hiri batean bizi da eta honen senarrak ere lan egiten du.
- Zientzia ikerlaria: bi alaba nagusi ditu, herri batean bizi da, bere ama nagusia da eta zaindu behar du eta bere senarrak ere lan egiten du.
- Biologoa: bera Euskal Herrian bizi da baina bere familia Valentziakoa da, hortaz ez dauka familiarik hurbil. Homosexuala da eta bere bikotearekin bizi da herri txiki batean, ez dauka seme-alabarik.
- Ertzaintzako polizia: ezkondua, senarra dagoeneko erretiratuta dago eta ez dauka seme-alabarik.

- Antzerki zuzendaria: ezkondata, senarrak ere lan egiten du, alaba bat dauka, Madrilen bizi da.

Elkarrizketatutako emakume bakoitzaren egoera desberdina da eta bakoitzak estrategia desberdinak garatu ditu lana eta familia antolatzeko. Lan sektore desberdinetan lan egiten dute gehienek, eta helburua emakume bakoitzaren egoera ezagutzea izan da.

2.2.2. Hizkuntza lantzeko jarduerak

Hizkuntza-trebetasunen barruan ahozko zein idatzizko trebetasunak lantzeko ariketak aurkituko dira liburuxkan. Biografia guztiekin ulermena landuko da eta honekin batera lexiko, ortografia eta gramatika lantzeko ariketak, betiere, 3.zikloan lantzen diren edukiak kontuan hartuta. Ondorengo taulan biografia bakoitzarekin egingo den jarduera agertuko da.

	Ulermena lantzeko jarduerak	Lexikoa, ortografia edo gramatika lantzeko jarduerak
1. Biografia	Idatzizko trebetasuna lantzeko, esaldi batzuk hutsuneekin agertuko dira eta ikasleek hutsuneak bete behar dituzte.	Lexikoa: esaera jatorrak landuko dira. Testuan zehar esaera jatorrak agertuko dira azpimarratuta eta jardueran hauen esanahiak izango dituzte idatzita. Esaera jator bakoitza bere esanahiarekin lotu behar dute.
2. Biografia	Testuaren inguruan esaldi batzuk agertuko dira eta haiek egia edo gezurra diren idatzi behar dute, eta gezurrak diren esaldiak zuzendu.	Ortografia: txistukariak landuko dituzte. Hirukoteka testuan agertzen diren hitzak izango dituzte eta haiek erabaki behar dute zeintzuk dauden txarto idatzita eta hauek zuzendu, bai jardueran bai testuan.
3. Biografia	Testuaren datu desberdinak egongo dira esaldietan adierazita eta ikasleek hauek dagokion ordenean idatzi behar dituzte.	Gramatika: jarduerarekin batera laukitxo batean teoria pixka bat izango dute "Izena" kontzeptua lantzeko. Gero, testuan aurkitu behar dituzte mota desberdinetako izenak eta beste berri batzuk asmatu.

<p>4. Biografia</p>	<p>Ahozko trebetasuna zein idatzizkoa lantzeko lehenengo eta behin bakoitzak zirriborro batean ideia nagusiak zeintzuk diren idatzi behar ditu eta gero ahoz kideari testuari buruzko laburpen txiki bat egin behar dio. Testuan bertan azpimarratu zeintzuk diren biografia batean agertu behar diren datu garrantzitsuak.</p>	<p>Lexikoa: Sinonimoak. Testuan agertzen diren hitz batzuk emango dizkiegu eta haiek hitz horien sinonimoak bilatu behar izango dituzte.</p>
<p>5. Biografia</p>	<p>Ahozko trebetasuna lantzeko, bikoteka ipiniko dira eta batak besteari galderak egingo dizkio testuaren inguruan bikoteak erantzun dezan.</p>	<p>Ortografia: H-ren erabilera. Bi jarduera izango dira. Lehenengoan, hirukoteka testuan agertzen diren hitzak agertuko dira eta haiek txarto idatzita daudenak zuzendu beharko dituzte. Bigarrenean, hitz berdina bi modu desberdinetan idatzita agertuko da eta haiek biribildu behar dute ondo idatzita dagoena.</p>
<p>6. Biografia sortzen</p>	<p>Haien biografia sortzeko orrialde bat izango dute. Ondorengo galderekin: Nor zara zu? Zein da zure bizitza? Ikasleek haien inguruan nahi dutena idatziko dute eta ondorengo orrialdean haien buruaren marrazki bat.</p>	

1. Taula. Hizkuntza lantzeko jarduerak.

2.2.3. Gogoetarako galderak

Colás-ek (1983) esaten duenaren arabera, ikasleengan eragin handiena daukana galderak egitea da. Izan ere, irakasleak egiten dituen galderen arabera funtsezkoa izango da ikasleak egingo duen prozesu mentala zehazteko. Irakasleak erabiltzen dituen galdetzeko moduak ere, ikasleek erantzuna emateko duten askatasun maila zehaztuko dute.

Hona hemen liburuxkan zehar agertuko diren galderak:

- Biografia hau irakurri eta gero, uste duzu emakumeentzako lanpostuak eta gizonetzako lanpostuak bereizi ahal ditugula? Horrela izatekotan, zeintzuk dira lanpostu horiek?

- Zergatik guraso batzuk uste dute neskek bakarrik ezkontzeko eta etxea zaintzeko balio dutela? Gaur egun ere horrela dela uste duzue?
- Zer egingo zenukete munduan genero berdintasuna gehiago sustatzeko?
- Gaur egun emakume gutxiago daude zuzendaritza-lanpostuetan gizonak baino, zergatik da hau?
- Zeintzuk izan daitezke oraindik emakumeen gainean dauden aurreiritziak?

2.2.4. Elkarrizketak sortzen atala

Liburuxkaren azkenengo orrialdeetan, behin ikasleek biografia guztiak irakurri dituztela eta euren biografia egin dutela, beste emakume baten biografia bat sortzeko aukera izango dute. Horretarako liburuxkaren amaierako orrialdeak azpiatal desberdinetan egongo dira banatuta. Alde batetik orrialde bat izango dute ondorengo galderekin: “Ze galdera egingo dizkiozu zure elkarrizketatuari? Zer jakin nahi duzu berarengandik?”. Orrialde horretan ikasleek elkarrizketa egiteko egingo dituzten galderak idatziko dituzte.

Ondoren, erantzuna idazteko lekua izango dute, elkarrizketa egiten duten bitartean. Azkenengo bi orrialdeetan lekua izango dute bildu dituzten datuekin biografia idazteko. Orrialde batean testua eta bestean, elkarrizketatuaren argazki edo irudi bat ipini dezakete.

2.3. Gaitasunak, helburuak eta ikasitako edukiak

Proposamen honekin gaitasun, helburu eta eduki desberdinak landuko dira, eta honetarako 236/215 Dekretuak Lehen Hezkuntzako etaparako ezarritako kompetentzia, helburu eta edukiak kontuan hartu dira. Gaitasunei dagokionez, ondorengo gaitasunak lantzen dira liburuxka honen bitartez:

Oinarrizko Zehar-Kompetentziak

- Hitzezko, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia

Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazioa digitala modu egoki eta bateratu edo osagarrian erabiltzea litzateke kompetentzia honen xedea, egoera

ezberdinen aurrean komunikazio egokiak sortzeko. Proposamen honetan behin baino gehiagotan lantzen da konpetentzia hau. Izan ere, ikasleek biografiak irakurri eta gero ulertutakoa azaldu behar dute, bai ahoz zein idatziz galderei erantzunez.

- Elkarbizitzarako gaitasuna

Konpetentzia honen helburu nagusiak, taldean egotea eskatzen duten egoeren aurrean, ikasleek gainontzeko ikaskideekin jarrera egokia izatea, besteen iritzi, sentimendu eta pentsamenduak errespetatzea eta bakoitzak bere ardurak hartzea dira. Proposamen honetan agertzen diren emakume desberdinen biografiak hausnartzeko aukera ematen dute, eta hausnartutako hori gainontzeko ikaskideekin partekatze eta guztion artean solasaldi bat sortzeko gaiaren inguruan.

- Norbera izaten ikasteko gaitasuna

Egoera ezberdinen aurrean pertsona bakoitzari sortzen zaizkion sentimenduez, pentsamenduez eta ekintzez hausnartzea litzateke konpetentzia honen helburu nagusia. Sortutako liburuxkan zehar ikasleek emakume desberdinen bizitzak ezagutuko dituzte, batez ere haien bizitza lan munduan eta zein den haien egoera. Horrek hausnartzeko aukera emango die, eta nesken kasuan, etorkizunean aukera handiak dituztela ikusteko aukera ikusiko dute eta agian haien ideiak pixka bat aldatu ikasketak hautatzerako orduan.

Oinarrizko diziplina barneko konpetentziak

- Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia

Edozein maila edo arlotan egonda ere Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia lantzen da. Konpetentzia hau modu anitzetan landu daiteke eta proposamen honen helburu nagusia komunikaziorako trebetasunak lantzea da. Hori dela eta, liburuxkan zehar ulermena landuko da jarduera desberdinen bitartez edota idazmena, amaierako biografia pertsonala idatziz. Ahozko trebetasuna ere landuko da, bai irakurritako biografiak azaldu behar dituztelako bai haien biografia aurkeztu beharko dutelako ikasleek.

- Konpetentzia sozial eta zibikoa

Gizarterako eta herritartasunerako konpetenziaren xedea da ikasleek mundua ezagutu eta ulertzea, gizartea aintzat hartuz. Proposamen honetan, genero desberdintasunaren gaia zeharkako modu batean lantzen da, ikasleei une oro hausnartzeko aukera emanez, eta ez bakarrik taldean pentsatzen dutena helaraziz baizik eta bakarkako gogoeta bat egiten gai honen inguruan. Gainera, jardueretan pentsamendu kritikoa garatzera bultzatuko zaie eta guztion artean eztabaida bat osatzera gaia jorratzeko.

Helburuak

Proiektu honek ondorengo helburuak ditu, txostenaren jarduerekin lortu nahi diren helburuak:

- Genero arteko desberdintasunari buruz hausnartzea, txosteneko biografiak irakurriz, pentsamendu kritikoa garatzeko.
- Pentsamendu sortzailea lantzea, lanak eta proiektuak egitean ideak sortuz eta hautatuz, sormena lantzeko.
- Pentsamendu kritikoa garatzea, proiektuetan informazioa interpretatuz, etorkizunean pertsona autonomoagoak izateko.
- Idatzizko gaitasuna garatzea, biografiak idatziz, biografien egitura zein den ezagutzeko.
- Ahozko gaitasuna garatzea, aurkezpenak eginez, hitz egiteko unean jariotasuna eskuratzeko.

Edukiak

Amaitzeko, proposamen honen bitartez 236/215 Dekretuan agertzen diren eduki desberdinak lantzen dira:

- Informazioa antolatzea, bilatzea, testualizatzea eta berrikustea, idatzizko testuak ekoiztea helburu hartuta.

- Ikasgelan landutako idatzizko generoen funtsezko ezaugarriak: solaskideak, helburua, erregistroa, egitura eta hizkuntza-elementu espezifikoak.
- Ahozko komunikazioaren oinarriko ezaugarriak eta espresio-elementu espezifikoak.
- Zikloan zehar landutako generoen egitura testualak: kontakizuna, albistea, erreportajea, elkarrizketa, jarraibideak, aurkezpena, debatea, iruzkina, kritika, eztabaida eta deskribapena.
- Nesken eta emakumeen ekarpenak agerian jartzen eta ezein bazterketa mota dakarten hizkuntza-adierazpenak ez erabiltzearen aldeko interesa izatea.

2.4. Proposamena erabiltzeko era ikasgelan

Liburuxka hau modu desberdinetan erabili daiteke 3. zikloko ikasgela batean. Alde batetik, soilik hizkuntza lantzeko, biografiak irakurri eta ondoren agertzen diren jarduerak eginez. Modu honetan hizkuntzaren trebetasun desberdinak landuko dituzte ikasleak. Baina hizkuntza lantzeaz gainera, generoaren zeharkako gaia lantzeko aukera ematen du liburuxkak. Eztabaida desberdinak sortu ahal ditu, ikasleek haien ikuspuntua emateko, haien egunerokotasunean zer bizitzen duten, genero desberdintasunik ikusten duten haien etxeetan edota agian kalean. Ikasleek dituzten aurreiritziak aztertu, zergatik pentsatzen duten lanpostu bat emakumeena dela eta beste bat gizonena.

Gainera, liburuxka hau ez da bakarrik hizkuntzako arloan erabiltzeko, Heziketa Emozionala edo Tutoretza bezalako arloetan erabiltzeko aukera dago, biografiak genero desberdintasunaren aldetik aztertuz, hizkuntzako jarduerak alde batera utzita. Liburuxkatik oinarri bezala, ikasleek gizonen lanpostu bezala ikusten dituzten lanpostuak aipatu ahal dituzte eta lanpostu horiek dituzten emakumeak bilatu interneten, haien biografia egin eta gero aurkeztu. Dagoeneko eginda dauden elkarrizketak ikusi ahal dituzte sarean eta gero hauek komentatu.

3. ONDORIOAK

Hizkuntza-trebetasunak lantzea izan da proposamen honen helburu nagusia uneoro. Azken finean, esparru teorikoan ikusi ahal izan dugun bezala, ahozko ekoizpen zein

ulermena eta idatzizko ekoizpen zein ulermena funtsezkoak dira ikaskuntza-prozesu osoan zehar. Lehen Hezkuntzako etapako helburu nagusietako bat da, gainontzeko ikasgaietan baliagarria eta urte askotan zehar landu beharrekoa. Izan ere, batzuetan eskola porrotaren arrazoi bat izan daiteke.

Hizkuntza-trebetasunak modu desberdinetan landu daitezkeela ikusi dugu, kasu honetan material errealak erabiliz, emakume desberdinen biografiak. Proposamenean zehar bizitza eta batez ere lanpostu desberdinak dituzten bost emakumeren bizitzak pixka bat ezagutu ahal izan ditugu. Bost biografia hauetaz baliatuz bakoitzean hizkuntza-trebetasunaren alderdi desberdinak lantzeko aukera dago.

Gainera, behin bost biografiak irakurri direla, ikasleek haien biografia idazteko aukera izango dute eta ez hori bakarrik haien bizitzetako beste emakume baten biografia bat idatzi ahal izango dute. Horretarako biografiak egiten jakiteaz gain elkarrizketa bat nola egiten den jakin behar dute. Modu honetan genero desberdinak lantzeko aukera emanez.

Hainbat ametsen istorioak liburuxkan hizkuntza-trebetasunak lantzeaz gainera, puripurian dagoen zeharkako gai bat lantzea izan da beste helburu nagusietako bat. Genero desberdintasuna ikasgeletan lantzeko aukera ematen du liburuxka honek ikasleak hausnartzera animatuz. Biografia bakoitzarekin ikasleek hausnartzeko aukera daukate, bai guztion artean bai indibidualki. Aurreiritziak baztertzeko aukera ematen du liburuxka honek, bai lan munduan dauden desberdintasunei buruz bai familiaren kudeaketaren inguruan dauden desberdintasunei buruz.

Laburbilduz, liburuxka honen bidez Lehen Hezkuntzako etapan funtsezkoak diren hizkuntza-trebetasunak lantzen dira eta gainera genero desberdintasunaren gaiaren inguruan hausnartu daiteke. Bakoitzak nahi duen lanpostua izateko aukera duela ikasteko, aurreiritzi guztiak alde batean utziz.

4. ETIKA PROFESIONALA ETA DATUEN BABESA

Elkarrizketatutako emakume guztiek jarraituko zen prozedura ezagutu izan dute elkarrizketa egin baino lehen. Haien datu pertsonalik ez da agertzen proposamenean zehar. Elkarrizketak grabatu aurretik baimena eskatu zaio emakume bakoitzari eta

grabaketaren jakinaren gainean zeuden. Grabaketa hauek proposamen sorkuntzarako soilik erabiliko direla ere jakinarazi zaie.

5. BIBLIOGRAFIA

Alberdi, A. (2008). *Oinarrizko Gramatika*. Donostia: Elkar.

Anaya-Reig, N. eta Calvo Fernández, V. (2019). Algunas propuestas para rehabilitar el uso de la biografía en la didáctica de la lengua y la literatura. *Revista de Educación de la Universidad de Granada*, (26), 223-236.

Avendaño, F. eta Miretti, M.L. (2007). El desarrollo de la lengua oral en el aula. Estrategias para enseñar a escuchar y hablar. Santa Fe, Argentina: HomoSapiens Ediciones.

Bermúdez, L. eta González, L. (2011). La competencia comunicativa: elemento clave en las organizaciones. *Quórum Académico*, 8 (1), 95-110.

Colás, M.P. (1983). La formulación de preguntas en el acto didáctico: un estudio comparativo. *Enseñanza & Teaching: Revista interuniversitaria de didáctica*, 1, 77-86.

Córdoba, P., Coto, R. eta Ramírez, M. (2005). La Comprensión Auditiva: Definición, Importancia, Características, Procesos, Materiales y Actividades. *Revista Electrónica "Actualidades Investigativas en Educación"*, 5 (1).

Edward, J., Gómez Barreiro, M.L., Matamoro, B., Pérez, R., Pérez Carrera, J.M eta Urrutia, H. (1992). Nuevo discurso de las Letras. Jornadas de Lengua y Literatura: Universidad de Deusto, Asociación Vasca de Profesores de Español.

Eusko Jaurlaritzak. (2005). Hizkuntzen, ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako europako erreferentzia markoa: HABE.

Eusko Jaurlaritzak. (2013). Irakurketa Lantzeko Orientabideak. Lehen Hezkuntza. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Eusko Jaurlaritzak. (2015). Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumak. 236/215eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea.

Esperanza, M. (2011). Aprendo con el juego en mi aula de Educación Infantil. *Pedagogía Magna*, 11, 373-381.

Fernández, J.M. (2004). Educación en valores: orientaciones para su desarrollo en la Educación Primaria. Andalucía: Grupo de Investigación Didáctica (Universidad de Sevilla).

Flores, C. (2006). Venturas y desventuras de la lectura en el aula de educación primaria pública. *Educación*, 15 (29). 53-62.

Fons, M. (2004). Leer y escribir para vivir. Alfabetización inicial y uso real de la lengua escrita en la escuela. Barcelona, España: GRAÓ.

González Landa, C. (2004). A modo de Obertura: Notas sobre leer y escribir. En M.C. González. (Ed.). Leer y escribir desde la Educación Infantil y Primaria. Ministerio de Educación y Ciencia (pp. 13-65): SECRETARÍA GENERAL TÉCNICA.

Lebrero, T. eta Lebrero, P. (1996). Cómo y cuándo enseñar a leer y escribir. España: EDITORIAL SINTESIS.

López Valero, A. eta Encabo Fernández, E. (2001). El desarrollo de habilidades lingüísticas. Una perspectiva crítica. Granada, España: Grupo Editorial Universitario.

Muñoz, C.M. eta Caravaca, R.V. (2004). Los cuentos y juegos, carácter lúdico necesario como recurso didáctico para la animación a la lectura. *Glosas didácticas*, 11, 169-176.

Murillo, M. (2009). La habilidad de escuchar, una tarea pendiente en la educación costarricense. *Revista Káñina*, 33 (2), 95-131.

Nieto, M. (1990). El juego como recurso didáctico: Una reflexión educativa. *Tabanque: Revista Pedagógica*, 6, 113-122.

Pérez Molina, D., Pérez Molina, A.I. eta Sánchez, R. (2013). El cuento como recurso educativo. *Revista de Investigación. Editada por Área de Innovación y Desarrollo, S.L.*, 2 (4), 1-29.

Ramírez, J. (2002). La Expresión Oral. *Contextos Educativos*. (5), 57-72.

Reyzabal, M.V. (2012). Las Competencias Comunicativas y Lingüísticas, Clave para la Calidad Educativa. *Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 10 (4), 64-77.

Rubio, A.D.J. eta García Conesa. I.M. (2013). El uso de juegos en la enseñanza del inglés en la educación primaria. *Revista de Formación e Innovación Educativa Universitaria*, 6 (3), 169-185.

Solé, I. (1987). Las posibilidades de un modelo teórico para la enseñanza de la comprensión lectora. *Infancia y Aprendizaje: Journal for the Study of Education and Development*, 39-40, 1-13.

Solís, Y. (2007). Propuesta metodológica para fomentar la igualdad de género en el aula escolar. *Educare*, 10 (1), 103-122.

Vallés, A. (2005). Comprensión lectora y procesos psicológicos. *LIBERABIT*. (11), 49-61.